



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## **2013ko uztailaren 23ko 26/2013 Foru Dekretuaren , udaletako zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion jardueretan enplegua bultzatzeko programak garatzearen Gipuzkoako udalei laguntzeko programa kudeatzeko baldintzen baitan, Azkoitiko Udalean lan izaerako eta aldi baterako balio anitzeko lau peoi hautatzeko prozesua arautuko duten oinarriak**

### ***Lehenengoa. Deialdiaren xedea.***

Deialdi honen xedea balio anitzeko **lau** peoi kontratatzea da, aldi baterako eta iraupen mugatuko obra edo zerbitzuko kontratuaren erregimenean, presazkoak eta atzeraezinak diren beharrak betetzeko, bai lehentasunezkoak jotzen diren sektore eta funtzioetakoak direlako, bai ezinbesteko funtzio publikoen funtzionamenduari eragiten dietelako ere.

Lanpostuen ezaugarriak honako hauek dira:

- Lanpostuak: 4 balio anitzeko peoi.
- Izaera: Aldi baterako Lan-kontratudunak, obra edo zerbitzurako.
- Ordainsariak: **UDALHITZ 7 (urteko ordainsaria gordina 23.490,18€)**
- Lanaldi osoa: Azkoitiko Udalak urtero ezarritako ordutegiarekin, lanpostuen ezaugarri eta beharren arabera.
- Kontratuaren iraupena: 5 hilabete

Egun osoko lanaldia izango du eta lanaldia eta ordutegia urtero Udalak erabakitzen dituenak izango dira, beti ere zerbitzuen beharren arabera.

### ***Bigarrena. Eginkizunak.***

Kontratatuko diren balio anitzeko peoiek ondorengo eginkizunak bete beharko dituzte nagusiki:

- Baliabide naturalak garbitzeko eta zaintzeko lanak: ibaiak, basoak eta ingurumeneko babes berezia aitortua duten gunek garbitzeko eta zaintzeko lanak.
- Herrilan eta instalazio publikoak mantentzeko zerbitzuak, eraikin publikoak eraberritzeko lanak egitea, eremu hondatuak lehengoratzeko jarduerak eta berriz hiritartzeko lanak egitea.
- Hiri inguruneetan eta espazio publikoetan irisgarritasuna hobetzeko lanak egitea.

### ***Hirugarrena. Izangaien baldintzak.***

Hautagaiek ondoren zerrendatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

a) Hiritartasun espainiarra, edo Europako Batasuneko estatu kideetakoren bateko herritarra izatea, Europako Batasunak egindako eta Espainiako estatuak berretsitako tratatu nazioartekoaren bertutez langileen zirkulazio librea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritarra izatea edo Espainian legezko bizilekua duen atzerritarra izatea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Lege apirilaren 12koak 57. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Halaber, espainiarren eta Europako Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontideek parte hartu ahaliko dute, betiere zuzenbidez bananduak ez badaude, baita haren eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere era berean, zuzenbidez bananduak ez badaude, baldin eta hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, urte gehiagoko adina izanda ere, haien dependentziadunak badira.

Bestaldetik, prozedura honetan parte hartu ahal izango dute bestelako nazionalitatea duten pertsonak beti ere Azkoitiko udalerrian azkeneko 12 hilabeteetan erroldatuta daudenak.

b) Hamasei (16) urteak beteak izatea eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunean eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

c) Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, Eskola graduatu agiria, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea den titulazioaren jabea izatea edo eskuratzeko eskubideak ordaindurik edukitzea. Hala badagokio, izangaiak egiaztapena ekarri beharko du, Administrazio eskudunak horretarako egindako ziurtagiriaren bidez.

d) Lanpostuko eginkizunak behar bezala betetzeko gaixotasunik, akats fisiko edo psikikorik ez edukitzea. Dagokionean egiaztatutako da hori, kontratazioaren unean izangaiei egin ahaliko zaien azterketaren bidez.

e) Diziplina-espeditente bidez Estatuaren zerbitzura dauden erakundeetatik, Elkarte Autonomoetatik edo Tokikoetatik baztertua ez izatea, ezta eginkizun publikoak egiteko ezgaitua ere.

**f) Euskal Enplegu Zerbitzuan (LANBIDEn) langabetu gisa izena emanda egotea.**

**g) Azkoitiko udalerrian erroldatuta egotea, oinarriak argitaratu baino gutxienez 6 hilabete aurretik.**

h) B motako gidabaimena indarrean izatea

i) Euskaraz hitz egin eta ulertzeko gai izatea.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

j) Kontratua suertatuz gero, kontratua izenpetzen den egunean, Herri Administrazioetako Pertsonalaren Bateriaezintasunak arautzen dituen abenduaren 26ko 53/1984 Legeak bateraezinak deklaraturako jarduerak ez burutzea.

Izangaiek, deialdian onartzeko eskabide-orriak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete beharko dituzte baldintza guztiak.

**Laugarrena. Eskabideak aurkeztea eta agiriak.**

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaera-orriak, Azkoitiko Udaleko Erregistro Orokorreko bulegoan eta udalaren web orrian ([www.azkoitikoudala.info](http://www.azkoitikoudala.info)) eskuratu ahal izango dira, eta behar bezala betetakoan, Azkoitiko Alkate-Udalburuari zuzenduko zaizkio. Hautagaiek, eskaerak aurkezteko epea amaitzeko datan, hirugarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela jasota utzi beharko dute.

Eskabidearekin batera ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte:

- Nortasun Agiriaren (N.A.) fotokopia konpultsatua.
- Deialdian parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia egiaztatua.
- Indarrean dagoen B motako gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- Euskal Enplegu Zerbitzuak (Lanbidek) luzaturiko ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzak luzaturiko lan-bizitza dokumentuaren kopia
- Kurrikulum-a
- SEPE-k luzaturiko ziurtagiria
- Eskaturiko betekizunen eta merezimenduen agiriak.

Bakar-bakarrik eskabideak aurkezteko epean aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak baloratuko dira.

Eskabideak, behar bezala beteta eta izenpetuta, Azkoitiko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira eta **aurkezteko azken eguna 2013ko URRIAREN 18a izango da.**

**Bosgarrena. Izangaien onarpena.**

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Alkatezaren erabakia emango da, eta onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko da. Zerrenda hori Udaleko iragarki-oholean eta [www.azkoitikoudala.info](http://www.azkoitikoudala.info) web orrian jarriko



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

da eta hautagaiek 3 egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko, iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Erreklamaziorik edo zuzenketarik egon ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da, eta egonez gero, onartu edo baztertu egingo dira, adierazitako moduan argitara emango den behin betiko zerrenda onartzeko beste erabaki baten bidez.

### ***Seigarrena. Epaimahai kalifikatzailea***

Epaimahai kalifikatzailea ondorengoek osatuko dute:

#### Mahaiburua:

- Lantaldearen ardura duen udal Aparejadorea edo hori ordezkatzeko duen teknikaria

#### Mahaikideak:

- Biltegi eta Brigada arduraduna edo hori ordezkatzeko duen langilea
- Gizarte Zerbitzuen Saileko gizarte langile bat edo hori ordezkatzeko duen langilea
- Kontratazio eta Pertsonal Saileko Administrazio Orokorreko Teknikaria edo ordezkatzeko duen langilea.

#### Idazkaria:

- Idazkaritzako administraria edo ordezkatzeko duen langilea

Epaimahaiak honako hauek balioetsiko ditu: eskabidean zehazturiko merezimenduak, titulu ofizialak, zehaztutako eginkizunekin lotutako titulu ofizialak eta lanpostuko zereginekin lotutako eta frogatutako ezagutza eta esperientziak. Era berean, frogak egiteko eta baloratzeko arduraduna izango da.

Epaimahaiak bidezkoz jotzen dituen aholkulariak izan ahalko ditu.

Epaimahaia ezin izango da eratu eta, hortaz, ez du jarduterik ere izango Epaimahaiko Lehendakaria, Idazkaria eta kideen erdia baino gehiago bertan ez badago.

Erabakiak botoen gehiengoaz hartuko dira, berdinketa emanaz gero Epaimahaiko Lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiz.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Epaimahaikideek parte hartzeari uko egin nahi badiote, Alkatetza-Lehendakartzari jakinarazi beharko diote eta izangaiek epaimahaikideak arbuiatu ditzakete, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen Legearen 28. eta 29. artikuluei jarraiki.

### **Zazpigarrena. Hautaketa irizpideak**

Hautagaiak hautatzerako orduan, ondoren zehazturiko irizpideak kontutan hartuko dira:

1. **Langabezia egoerarekin zerikusia duten irizpideak (gehienez 35 puntu)**

- **Langabezia laguntza/langabeziako sorospena agortu izana, ondorengo mugaketarekin – gehienez 15 puntu**

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko azken 12 hilabeteetan langabezia laguntza/orospena agortu izana: 15 puntu
2. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko azken 6 hilabeteetan langabezia laguntza/sorospena agortu izana: 10 puntu
3. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko azken 3 hilabeteetan langabezia laguntza/sorospena agortu izana: 8 puntu
4. Langabezia laguntza/sorospena datozen 3 hilabeteetan agortzea: 6 puntu
5. Langabezia laguntza/sorospena datozen 6 hilabeteetan agortuko du: 4 puntu
6. Langabezia laguntza/sorospena datozen 12 hilabeteetan agortuko du: 4 puntu
7. Gainontzekoak puntu 1

Datu horiek Euskal Enplegu Zerbitzuak luzaturiko ziurtagiriarekin egiaztatuko dira.

- **Azken lan-harremana honako epeetan agortu izana – gehienez 10 puntu (lan harremanaren gutxieneko iraupena: 6 hilabete)**

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko azken 24 hilabeteetan azken lan-harremana amaitu izana: 10 puntu
2. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko azken 18 hilabeteetan azken lan-harreman amaitu izana: 8 puntu
3. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko azken 12 hilabeteetan azken lan-harremana amaitu izana: 6 puntu
4. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko azken 6 hilabeteetan azken lan-harremana amaitu izana: 4 puntu
5. Gainontzekoak, 2 puntu

Datu horiek lan bizitzarekin egiaztatuko dira.

- **Diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo diru-sarrerak bermatzeko**



### laguntza jasotzea – gehienez 10 puntu

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko azken 12 hilabeteetan gutxienez diru-sarrerak bermatzeko errenta edo diru-sarrerak bermatzeko laguntza jasotzea: 10 puntu
2. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko azken 6 hilabeteetan gutxienez diru-sarrerak bermatzeko errenta edo diru-sarrerak bermatzeko laguntza jasotzea: 8 puntu
3. Diru-sarrerak bermatzeko laguntza jasotzea: 6 puntu

Datu horiek udal zerbitzuek egiaztatuko dituzte.

### 2. Hautagaiaren gizarte, familia eta egoera ekonomikoa: gehienez ere 35 puntu

- **Bere kargura mendeko pertsona gehien duena: gehienez 15 puntu**
  1. 4 edo mendeko pertsona gehiago bere kargura izatea: 15 puntu
  2. 3 mendeko pertsona bere kargura izatea: 12 puntu
  3. 2 mendeko pertsona bere kargura izatea: 9 puntu
  4. Mendeko pertsona bat bere kargura izatea: 6 puntu
  5. Bat ere ez: 3 puntu
- **Emakumea izatea: 5 puntu**
- **Adina: gehienez 10 puntu**
  1. 55etik gora: 10 puntu
  2. 35 urtetik beherakoa edo 45-55 urtearte izatea: 5 puntu
- **Aitortutako ezgaitasunen bat izatea, Foru Aldundiak aitortua izatea eta gutxienez %33a izatea: 5 puntu (datu hau udal zerbitzuek egiaztatuko dute)**

### 3. Hautagaia eta eskainitako lanpostuari egokitzen zaizkion ezagupenak edo lan trebetasunen arteko egokitzapena: gehienez 35 puntu

1. **Curriculumak: gehienez ere 25 puntu**, eskatzen den lanpostuaren antzekoak diren zereginetan lan egindako hilabete bakoitzeko 0,25 puntu. Hilabete zatiak ez dira zenbatzen. Egindako zereginen antzekotasuna baloratzeko lan-bizitza, lan-kontratuak eta egindako funtzioen berri ematen duten enpresa ziurtagiriak hartuko dira kontuan. Dokumentazio hau eskatzaileek ekarri beharko dute, eskaera orriarekin batera.
2. **Froga -elkarrizketa: gehienez ere 10 puntu**. Irizpideen balorazioa egin ondoren, aurreko ataletan lortutako puntuazioa kontutan izanik, zerrendan lehendabiziko 10 postuetan geratzen diren hautagaiak elkarrizketa pertsonalak egingo zaizkie, **lanpostura egokitzen direla eta eskaturiko euskara maila dutela egiaztatzeko**.



### ***Zortzigarrena. Epaimahaiaren proposamena***

Hautaketa prozesua amaituta, Epaimahai kalifikatzaileak horien emaitza argitaratuko du behin betiko puntuazioarekin. Epaimahaiak, azken puntuazioen hurrenkeraren arabera proposatutako izangaien datuak udaletxeko iragarki-taulan eta web orrian erakusgai jarriko ditu. Kontratazioaren inguruko erabakia hartuko da eta aldi baterako zerrenda osatuko da hautaketa prozesua gainditu duten hautagaiekin, lortutako puntuazioaren arabera hurrenkeran. Itxaron zerrendak uztailaren 23ko 26/2013 Foru Dekretuaren, udaleko zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion jardueretan enplegua bultzatzeko programak garatzearen Gipuzkoako udalei laguntzeko programa kudeatzeko baldintzak arautzen dituen (GAO 2013ko uztailaren 29koa, 143 zenbakian), 5.4 artikuluan xedaturiko eran egingo da.

Berdinketa gertatuko balitz, epaimahaiak ondorengo irizpideen arabera jardungo luke, hurrengo hurrenkerari jarraiki:

- Lan-eskatzaile moduan denbora gehien daraman hautagaiaren alde egingo da.
- Mendeko pertsona gehien dituen bere kargura.

### ***Bederatzigarrena. Izaera pertsonaleko datuen babesa***

Hautaketa prozesuan zehar izangaiek ekarritako izaera pertsonaleko datuei, datu pertsonalen babeserako 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa aplikatuko zaie, 994/1999 Errege Dekretua, zeinaren bidez izaera pertsonala duten datuen fitxategi automatizatuaren segurtasun neurrien Erregelamendua onartzen den, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Herri Jabetzako izaera pertsonaleko fitxeroei buruzkoa, eta Datu Babeserako Euskal Agentzia sortzen duena eta gainontzeko arauak.

### ***Hamargarrena. Gorabeherak***

Epaimahaiak sortzen diren zalantzak argituko ditu, eta hautaketa prozesua ondo joan dadin beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarri hauetan aurreikusten ez den guztian.

### ***Hamaikagarrena. Aurka egitea.***

Hautagaiek, deialdi honetako oinarrietatik eta epaimahaiaren jardueratik eratorritako administrazio-egintzen aurka egin ahal izango dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak ezarritakoaren arabera.

Halaber, deialdi honen aurka Administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzekotan, Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegian jarriko da bi hilabeteko epean,



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

administrazioko auzigaietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoari jarraiki. Halaber, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua jar daiteke alkatearen aurrean, hilabeteko epean.





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## I. ERANSKINA ESKAERA ORRIA/IMPRESIO SOLICITUD

Deialdia: AZKOITIKO UDALERRIAN, LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONAK KONTRATATZEKO HAUTAKETA PROZESUAN PARTE HARTZEKO, UZTAILAREN 23KO 26/2013 FORU DEKRETUAREN BAITAN/PARA PARTICIPAR EN EL PROCESO SELECTIVO PARA LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS DESEMPLEADAS EN EL MUNICIPIO DE AZKOITIA, AL AMPARO DEL DECRETO FORAL 26/2013, DE 23 DE JULIO

LANPOSTUA/PUESTO DE TRABAJO <input type="checkbox"/> BALIO ANITZEKO PEOIA/PEÓN POLIVALENTE	Sarrerako Erregistroa /Registro entrada
---	---

### 1.- DATU PERTSONALAK - DATOS PERSONALES

1. Deitura - 1º Apellido	2. Deitura - 2º apellido	Izena – Nombre	
N.A. - D.N.I.	Jaiotze-data – Fecha nacimiento	Telefonoak –Teléfonos	
Helbidea – Domicilio	Herria – Probintzia – Municipio- Provi.	Posta Kodea Código Postal	
<b>Baimena ematen dut nire datuak Udaleko datu-basean sar daitezen, udal informaziorako soilik</b> Autorizo que mis datos formen parte de la base de datos del Ayuntamiento únicamente para información del Ayuntamiento <input type="checkbox"/> BAI/SI    EZ/NO			

### 2. HEZIKETA - FORMACIÓN

Deialdian eskatutako titulu akademiko ofiziala – Título académico exigido en la convocatoria

Titulua -. Título
-------------------

**Honakoa ADIERAZTEN DUT (markatu dagokion laukitxo):**  
EXPONE (marcar las casillas que correspondan)



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

<input type="checkbox"/>	_____ ko (lekua adierazi) enplegu bulegoan izena emandako langabetua naiz _____ egunetik (uu/hh/ee). Soy una persona desempleada inscrita en la Oficina de Empleo de _____ (señalar el lugar) desde el día _____ (dd/mm/aa)
<input type="checkbox"/>	<b>Langabezia laguntza/langabeziako sorospena agortu dut</b> _____ <b>egunean (uu/hh/ee)</b> . He agotado la prestación o subsidio de desempleo el _____ (dd/mm/aa)
<input type="checkbox"/>	<b>Langabezia laguntza/langabeziako sorospena agortuko dut</b> _____ <b>egunean (uu/hh/ee)</b> . Agotaré la prestación o subsidio por desempleo el _____ (dd/mm/aa).
<input type="checkbox"/>	<b>Azken lan-harremana</b> _____ <b>egunean (uu/hh/ee) egortu dut</b> . He finalizado la última relación laboral el _____ (dd/mm/aa).
<input type="checkbox"/>	<b>Diru-sarrerak bermatzeko errenta edo diru-sarrerak bermatzeko laguntza jasotzen dut</b> _____ <b>egunetik (uu/hh/ee)</b> . Percibo la Renta de Garantía de Ingresos o Ayuda de garantía de ingresos desde _____ (dd/mm/aa).
<input type="checkbox"/>	<b>Mendeko</b> _____ <b>pertsona ditut nire kargu,</b> _____ <b>(ahaidetasuna adierazi)</b> . Tengo a mi cargo _____ personas dependientes _____ (indicar el parentesco).
<input type="checkbox"/>	<b>Emakume naiz</b> . Soy mujer
<input type="checkbox"/>	<b>35 urtetik beherakoa edo 45-55 urteartekoa naiz</b> . Soy menor de 35 años y mayor de 45 años y menor de 55 años.
<input type="checkbox"/>	<b>55 urte baino gehiago ditut</b> . Tengo más de 55 años.
<input type="checkbox"/>	<b>Desgaitasun bat dut Gipuzkoako Foru Aldundiak aitortua eta %33 baino gehiago</b> . Soy persona con discapacidad reconocida por la Diputación Foral de Gipuzkoa mayor del 33%
<input type="checkbox"/>	<b>Datu hauek frogatzeko dokumentazioa aurkez dezaket, hala eskatzen zaidanean</b> . Puedo demostrar estos datos documentalmente cuando me sea requerido
<input type="checkbox"/>	<b>Eskatutako baldintzak betetzen ditut eta deialdiaren oinarri guztian onartzen ditut</b> . Reúno las condiciones exigidas y acepto en todos sus supuestos las bases de la convocatoria

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA/DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

<input type="checkbox"/>	<b>N.A.N fotocopia konpultsatua</b> . Fotocopia compulsada del D.N.I.
<input type="checkbox"/>	<b>Lanbide-n lan eskaintzaile izatea ziurtatzen duen agiria</b> . Documento acreditativo de estar inscrita como demandante de empleo en Lanbide
<input type="checkbox"/>	<b>Titulu akademikoa</b> . Título académico
<input type="checkbox"/>	<b>Indarrean dagoen B gidabaimenaren fotocopia konpultsatua</b> . Fotocopia compulsada del persona de conducción tipo B en vigor
<input type="checkbox"/>	<b>Langabeziako sorospenen ziurtagiria (SEPE-k luzaturikoa)</b> . Certificado de subsidio de desempleo (emitido por SEPE)
<input type="checkbox"/>	<b>Curriculuma</b> . Currículum
<input type="checkbox"/>	<b>Lan bizitza dokumentuaren fotocopia, Gizarte Segurantzak emandakoa</b> . Fotocopia de “vida laboral”, expedido por la Seguridad Social.



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

Behean sinatzen duenak, eskaera hau dagokion aukeratzeko probatan onartua izatea **ESKATZEN DU**, eta bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta Oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela **BAIEZTATZEN DU**, eskatutakoa agiri original bidez zurituko duela hitz ematen duelarik.

El abajo firmante **SOLICITA** ser admitido en el proceso de selección y al mismo tiempo declara que son ciertos los datos que aparecen en la solicitud y que cumple todas las condiciones exigidas en las bases de la convocatoria, manifestando que aportará los documentos originales cuando le sean requeridos.

DATA/FECHA

SINADURA//FIRMA

**AZKOITIKO ALKATE-UDALBURUARI/  
ALCALDE-PRESIDENTE DEL  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

